


Amadeo Gonzalez, judoka

"Judoa hezkuntzarako oso lagungarria da"

Orensen jaioa bada ere bera oso gazte zela Elgoibarrera etorri zen bizi izatera. 28 urte daramatza judo munduan eta horietatik azken 15 urteak kirol hau irakasten dihardu. Estatu mailako epaile titulua dauka eta horrez gain, Euskal Federazioan ere postu garrantzitsuak bete izan ditu. Egun, Elkolabarri ikastetxeak dituen lokaletan ari da judoa irakasten, aurrez Aritz mendi pilotalekuan ere eman zituen zenbait urte. Duela gutxi, bere bizitza osoan judoari eskaini dion ahalegin osoaren ordain, laugarren damm tituloa eman berri diote. Datorren Santixauetako judo emanaldia prestatzen harrapatu dugu.



- *Titulak ilusio handia egin dizu?*

Azken urteak judoaren irakaskuntzari eskaini dizikiot eta horrez gain epaile lanetan ere ibili naizenez eman didate saria.

●so pozik hartu dudala ezin ukatu

- *Urteak dira lehiaketa alde batera utzi zenuenetik...*

Belauneko lesio larri baten ondorioz utzi nuen.

- *Azken urteak irakasten. Zenbat ikasle dituzu?*

35-40 bat ikasle dauzkat.

- *Neskak ere badituzu tartean...*

Judoan ere, geroz eta gehiago dauzka zorionez eta izugarritzko mailarekin gainera.

- *Txapelketetan ere aritzen zarete herri...*

Gipuzkoan, Bizkaian eta hemendik kanpo ere aritzen gara. Baita Euskal Herriko nahiz Nazioarteko txapelketetan ere.

- *Ikasleak zenbat urterekin hasten dira?*

4 urterekin ere hasten dira batzuk baina 6 urtetik aurrera hasten dira gehienak.

- *Haurren hezkuntzan lekua hartzen dihoa judoa apurka, apurka...*

Judoak bizitzako atal asko lantzen ditu: elkarrekiko harremanak, etika, lanerako izpiritua, ea... ohiko hezkuntza-

ren osagarri aproposa dela uste dut.

- *Santixauetan ere urteroko txapelketa antolatu duzue...*

Azken urteetan inguruko herrietako lagunak gonbidatu eta erakustaldi bat antolatzen dugu. Uztailaren 15ean izango da eta bertan 200 judoka biltzea espero dut. Aurtengoarekin 7. edizioa osatuko dugu.

- *●ndoren irailera arte oporrak...*

Irailean ekingo diegu berriro ere klaseei. Indartsu hasi beharko gara Espainiako txapelketa ere laister izango da eta.

Asier Ibaibarriaga

IKASTOLA
33 urte Ermua euskalduntzen

TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

IN FREN
TABERNA

PRO
-ARRAINDEGIA
-ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK
ESKAINITZA BEREZIA OSTIRALERO
Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA